Eta ixan-be. Gela nagusijan jaŕi euzan: Sabin'ena berak egindako euzko-ikuŕin polit ederagaz inguratu eban eta Neskutza'rena egunian-egunian lorez apainduten eban. Baratzan berak eta Nikola'k jabondako lorarik poliťenak Neskutza'rentzat ziran. ¡Lorez inguratutako Neskutz polita! Goxian-goxian eta gau gustijetan be, senaŕ-amazte bijok, otoi-egiťen eutsoen. ¿Zer eskatuten ete-eutsoen ain maŕero? Albaun eguan Sabin'en irudijak bai-ekijan, eta pozezko iŕi-baŕiaz ordainduten eutsoela irudijan.

* * *

Zoruna beti osua ixaten eztala-ta, beñola su ikaragaŕijak aŕtu eban Nikola ta Lide'ren etxia. Lasteŕtxu, leyo gustijetatik suba ta gaŕak, keya ta txinpartak urtetan asi ziran eta, gaiztoki-apaz, orma gustijak besaŕkatu ebezan...

¡Lide'ren oñaza ixan zan aundija! Bilduŕez zoratura zurubiťik bera abijau zan eta oyuz Nikola'ri dei-egiťen eutson. Nikola ageŕtu zan, auzokidiak deŕuta. Lide'gana juan eta gotasetan (9) asi zan; baña bere margeŕkijetaz gomutaurik, atsebagiak jota, oñazez esan eban: "¡Neure margeŕki gaxuak!"

"Neure margeŕki gaxuak...! Uŕutik anotsa ba'litz lez, oyu oŕek Lide'ren belaŕijetan jo eban. Berialaxe baretu zan eta gog sendoz esan eutson bere senaŕari.—Nikola, euren billa juan biaŕ gozak. Etxuaguz eŕetan itxi biaŕ.

—Baña, gaxua; ¿ezton ikusten gaŕak etxe osua inguratzen yuenala? ¿Eztakin aldi gitxi-baju orma gustijak luŕjoko yoenala? ¿Ezton ikusten...?

—Gayuazan gora. Zuribija zutik yagok ondiño. Bilduŕa eztok gixonena... eztok emakume abeŕtzaliena bez.

—Gayonazan, ba.

Lasteŕtxu senaŕ-emazte-irudirik etzan ikusi. Ikusle gustijak bilduŕ-oyuba estaŕijetan iŕo eben. ¿Zer jazoko ete-zan?

* * *

Lide ta Nikola eldu ziran goira. Gaŕak naŕuba eŕetan eutsoen eta kei kiskaldubak arnasa ebagi ta ikusmena illunduten eutsen. Nekiaren nekez gela nagusira eldu ziran margeŕkijak aŕtu ta berantz abijau ziran... Zoritxaŕez azkengo mallaetara elduta, zurubijak kaŕak-egin eta buŕunbadaka luŕ-jo eban.

Senaŕ-emaztiok atadijan jausi ziran arnasarik aŕtu eziñik. Lide'k, besapian, Sabin'en irudija estututen eban gogoŕ, ta Nikola'k Oŕbanbage Soŕtuba'rena...

Lide bai-zan bilduŕtija; baña bere abeŕtzaletasuna ta Irakasliarijaren maŕasuna aundijaguak ziran.

ATXONDOA.

Ipurdieŕe'k il-agiñian eguala eskribauari dei-egin eutson testamentuan auxe ipinteko:

«Nire emazte ta seme-alabai aŕen eskatzen dautset, neu ilda gero osalarz edo mediku ospetsu batek *autosia* egin dagistala, zegaiťik il nazan ziatz-ziati jakiteko».

## ¿Zelan leiduten da euzkeraz?

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| *tx* | leiduten | da | *ch* | lez. | Ara: | *etxia* | da | *echia.* |
| *ŕ* | » | » | *rr* | » | Ara: | *txakuŕa* | » | *txakurra.* |
| *ĺ* | » | » | *ll* | » | Ara: | *mutiĺa* | » | *mutilla.* |
| *ŧ* | » | » | *it'en* | antzera. | Ara: | *aŧa* | » | *aita*-edo. |
| *x* | » | » | *iz*-edo *is'en* | » | Ara: | *gaxua* | » | *gaizua*-edo. |

(9) Gotasau—gogo-asetu—consolar.

## Maintoni'ri

¿Nola zuk, Maintoni gastia,
jayo ziñan basetxia lagarik,
aŕtu dezu urira-bidia
oŕen alai, tamal-gaberik,
ta zeure sendiya lagatzian ez dezu malkorik?
¿Nola zuk Maintoni maiťia,
mendiyen igesi bezela,
aŕturik urira-bidia,
zuaz laisteŕka aldatsian bera...
bera ta bera... nekatzen etzerala?
Ikus-min kaldeŕak zuregan
soŕtu duan egaŕiak,
zure biotza astintzen duan
itxaropen txoroen aiziak,
zemazki gaidu-gordian
urirontz, ¡eŕukaŕia!
noski uste-dezu
an zoriona aŕkitzia...
bañan aztaŕtu zazu
adimenaren argiya,
ta maiťagaŕi azalduko zaizu
mendiko gentza alaya.
Uriko aiziak, Maintoni,
dira indaŕtsu kaltegaŕiak,
eŕaz auŕian aŕtzen diťu
gastien buru ariñak;
gero abetan katibaturik
aŕaztaka dijoazen biotz indargeak,
laisteŕ negargaŕizko itxuran
laga oi-diťu beko loyak,
egiťen dirala guzien destaingaŕi
beren eŕuz eŕukaŕiak.
Bañon mendiyan gentza da aŕkitzen,
ta aize biguña onuragaŕi,
¡a! zein eztitsu aidatzen duan
biotza azke ta garbi,
laisteŕ jasorik donokiraño
an eskeintzeko Jaun berari.
Igo ostera mendiyan gora...
ekin sendo aldatzari,
ez ba-dezu nai iñola
izan betiko eŕukaŕi,
Zoaz gora, igo, igo, Maintoni.

TENE.

1841'gko. Urtaŕila-19'an Bizkai'ko *Eŕekimendu Keneralak* Gobernuari eskatzen dautso *Pase Forala* ez kentzeko.

## Aberatsa ta osalaria

### (ipuya)

Dirua besterik etzeukan Amerikano bat, gexo luzaro zegoan, eta bere osatzen zebillan osalaria ixildugabe ari zitzayon il-buruan edo testamentuan ari ere zerbait ondotxo uzteko.

¡Bai, bai gizona! esaten zion atzera gexo zegoan aberatsak.

Aberatsa gaizkitzen zijoan eta egin zuan bere il-burua.

Il zanean bai osalaria, bai beste aide guziak ipurdian laŕi ziran il-burua ikusi-aŕte. Il-buru iriki zutenean lendabizi jaŕtzen zuan bere gelako giltzaz itxiťa zegoen kutxatilla oso-osorik osalariarentzat izateko. Uste zuten bere diru ta izate guzia antxe izango zala. ¡Ura zan istillua aidien aŕtian! Iriki zuten kutxatilla ori; ta ¿zer uste dezute zegoala? Osalariak il zan gexoari egin ziozkan txartel edo eŕezeta guziak bil-bil eginda; besterik bat ere ez. ¡Aŕapa-zak aberatsa!

*Buŕutxa-Azpi.*